

# EUSKARAREN Berripapera

## sumarioa

1

- Soziolinguistikazko Mapa

2

- Joxe Arratibel
- Agenda:  
Dialektologia Udako Ikastaroetan  
UEU  
Haur hizkuntza, VIII. Nazioarteko Biltzarra

3

- Europako dirulaguntzak
- Udako barnetegiak

4

- Eredu Urriko Hizkuntzen Biltzarra
- Ordenadoreek ahozko euskara uler dezaten

## II. SOZIOLINGUISTIKAZKO MAPA

Euskal Autonomia Erkidegoko bilakaera soziolinguistikoa

**III.** *Soziolinguistikazko Mapak* Euskal Autonomia Erkidegoan euskarak bizi duen egoeraren berri ematen digu. Horretarako, 1981, 1986, 1991 eta 1996 urteetako zentsuetan eta errol-detan jasotako euskarari buruzko galderak erabili dira. Aztertu den unibertsoa Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 5 urtetik gorako biztanleak izan dira.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak egindako ikerketa-lan honen bidez, beste urrats bat eman nahi izan da 80ko hamarkadaren erdialdean hasitako ikerketa-lerroan. *II. Soziolinguistikazko Mapak* Euskal Autonomia Erkidegoko bilakaera soziolinguistikoa zehatz-mehatz eza-gutzea eta hizkuntza-plangintza egokia lortzen laguntzea du helburu.

Ikerketa honetan, hizkuntza-gaitasuna, ama-hizkuntza eta etxeko erabilera banan-banan eta sakontasunez aztertzeaz gain, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak landutako bi aldagai sintetiko ere gehitu dira: hizkuntza-bilakaeraren tipologia eta etxeko hizkuntzaren erabilaren tipologia. Bi aldagai sintetiko horien bidez, pertsona bakoitzaren ama-hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna ezagutzeko aukera izateaz gain, etxean erabiltzen duen hizkuntzaren berri izan dezakegu.

Ikerketa-lan honen berrikuntzarik garrantzitsuenetako bat honakoa da: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundeari esker, lehenengo familiakide guztien erregistroak lortu dira eta euskaldunen dentsitatearen arabera aztertu da etxeko hizkuntzaren erabilera. Aldi berean, dauden datuen arabera, soziolinguistikazko bilakaera diakronikoa egin da 1981, 1986, 1991 eta 1996 urteetan oinarrituta.

*II. Soziolinguistikazko Mapa* hiru aletan argitaratu da. Lehenengoan, Euskal Autonomia Erkidegoa eta hiru lurraldeak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) aztertu dira 1981 eta 1991 bitartean. Bigarrenean, eskual-

dekako azterketa egituratua egin da 1981 eta 1991 bitartean. Eskualde bakoitzari buruzko txostenean udalerrri-mailako informazioa emateaz gain, 10.000 biztanletik gorako udalerrietan informazioa auzoka eman da. Hiriburuek, gainera, trataera berezia izan dute eta euren eskualdeko txostenaren barruan atal bana eskaini zaie, auzoka aztertuz. Hirugarrenean, EAEtik hasi eta udalerrri-mailara bitartean euskararen egoera eta bilakaera nolako izan den azaltzen da, beti ere 1996ko erroldan bildutako informazioaren arabera. Bigarren alean bezalaxe, oraingoan ere 10.000 biztanletik gorako udalerrietan emaitzak auzoka ere eman dira. Bestalde, EAERI eta lurraldeei buruzko azterketa zehatza egin den bitartean, eskualdeak eta udalerrriak aztertzeke orduan, emaitzarik azpimarragarrienak nabarmendu dira.

Argitalpenarekin batera, 1981 eta 1996 urte bitarteko datu estatistiko guztiak EUSTATen HEDAPEN formatuan eskaini dira eta datu horien trataera egin ahal izateko PC-AXIS Windows 1.5 programa ere erantsi da.

Bestalde, kaleratu diren argitalpenak eta daturik nabarmenenak EUSTATen zerbitzarian jarri dira. Horretaz gain, *Euskadi.net* webeko Euskara atalean ere, argitalpenekin batera, euskarari buruzko datu guztiak izango dira aurki.

Ondorio gisa, esan liteke 1981 eta 1996 bitartean, gaitasunak gora egin duela etengabe. Igoera hori lurralde eta eskualde guztiek ez ezik, udalerrri guztiek ere ezagutu dute. Izan ere, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago udalerririk euskaldunik ez duenik.

Hala ere, hizkuntza-gaitasunak izan duen gorakada hori ez da oraindik gertatu familia bidezko jarraipenean, ez eta erabileran ere. Beraz, esan daiteke hizkuntza-gaitasunaren gorakada ikusgarria eskolari zor zaiola gehienbat.

## agenda.....

DIALEKTOLOGIA  
UDA IKASTAROETAN

**E**uskal Herriko Unibertsitateak antolatutako ohi dituen Uda Ikastaroen egitarauaren barruan, Euskal Dialektologiari buruzko ikastaroa izango da ekainaren 28tik 30era. Dialektologia alorrean gaur egun egiten ari diren ikerketa zehatz

aurkeztuko dira bertan. Alde batetik, muga-hizkera batzuk izango dira aztergai: Erroñkari, Luzaide, Arano-Goizueta eta Deba arrokoak. Intereseko diren beste zenbait hizkera ere aztertuko dira: Esteribar-Erroibar haranetakoa, eta Donostiakoa. Dialektologiako teoria orokorrak ere landuko dira eta leku berezia izango dute azentuaren eta intonazioaren gaineko hitzaldiek. Koldo Zuazo irakaslea da ikastaroaren zuzendaria.

Argibideetarako: <http://www.ehu.es>

## UEUren 27. EDIZIOA



**U**dako Euskal Unibertsitateak ere agindu ditu aurtengo ikastaroak. Miarriritzen izango dira uztaillaren 5etik 9ra, eta Iruñean, berriz, uztaillaren 19tik 30era.

UEUn ohi denez, askotariko ikastaroak izango dira aukeran: informatika, antropologia, psikologia, pedagogia, soziologia, natur zientziak e.a. EHUK hautaketa libreko kreditu-sisteman onarturik ditu UEUren ikastaroak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan, ostera, ikasleak nahitaezko du eskaera egitea, berariaz.

UEUK bi e-posta helbide ere baditu argibide gehiago nahi dituenarentzat: [ueu@wanadoo.fr](mailto:ueu@wanadoo.fr) eta [bulegoa@ueu.org](mailto:bulegoa@ueu.org)

## JOXE ARRATIBEL

Idazle harrigarriaren kontu zaharrak berri

**J**oxe Arratibel Ataun-San Martingo Ergoien auzoan jaio zen 1923an. Lazkaora fraide joan zen 15 urte zituela, beneditar. Estibaltzen egin ditu urterik gehienak hala ere, nahiz eta Venezuelan ere ibili zen, misiolari.

Gazterik hasi zen etxean txikitik entzundako ipuinak kontatzen eta idatzi ere zituen halako batean, 1980an argitara eman zituelarik liburu mardul eta bete-betean *Kontu zarrak* izenburupean, bere herriko hizkera moduan. Duela lau urte berriro argitaratu ziren Arratibelen ipuinak, euskara batuan: *Kontu Zaharrak*.

Harrezkero, beste bi liburu txiki eman ditu argitara: *Erramun eta*

*Mirentxu* (1997) eta, oraindik orain, *Sorginen urrezko maindirea* (1999). Bi liburuetan ere txikitik entzundako kontuak bildu ditu Arratibelek. Hala ere, *Sorginen urrezko maindirea* argitara berri, ipuinak ez beste ere bildu du: kantutak eta hitz jokoak, adibidez.

Idazlea harriturik dago bere lanak duen sona handiaz jabeturik. Sarri adierazi izan duenez, "nik ez dut ezer asmatzen. Orain dela hirurogei urte entzun nituen bezala idatzi ohi ditut kontu zahar hauek".

Felix Ibargutxi kazetariak, aldiz, bestela asmatu du Joxe Arratibelen ipuinak definitzeko: "Ataungo errealismo magikoa".

HAUR HIZKUNTZAREN  
IKASKUNTZARAKO VIII.  
NAZIOARTEKO BILTZARRA

**U**ztaillaren 12tik 16ra mundu zabaleko ehunka lagun elkartzeko dira Donostian, Haur Hizkuntzaren Ikaskuntzarako VIII. Nazioarteko Biltzarra medio. EHUREn Udako Ikastaroen barne ageri da hiru urtean behin egiten den bilkura. Mundu osoan alor horretan ari diren adituak bilduko direla ziur da. 32 simposio, 84 hitzaldi, 270 poster eta 6 hitzaldi izango dira, haurrek elebitasuna nola barnatzen duten aztertuko delarik. Gainera, hizkera akatsak, metahizkuntz gaitasuna, fonologia, sintaxia, guraso-haur komunikazioa eta beste ere jorratuko da.

Euskara eta ingelesa izango dira ikastaroetako hizkuntza bi ofizialak, eta bat-bateko itzulpena ere egingo da.

Miramar Jauregian beharrean, Kursalen egingo da biltzarra.

## DEIALDIA

### Europako dirulaguntzak

**E**remu urriko hizkuntzak sustatu eta babesteko asmo duten ekimenak lagunduko ditu aurten ere Europako Batzordeak.

Laguntzak eman behar eta bi atal bereziko dira nagusiki: Hezkuntza, eta Dibulgazioa. Hezkuntzari dagokionez, hizkuntzen irakaskuntza eta material didaktikoaren sorkuntza sustatuko dira, batik bat. Dibulgazioari denaz bezainbatean, berriz, Europa mailako sareen eraikitzea eta esperientzi trukea eragingo dira, esan nahi baita, proiektu pilotuak, ikerketa konparatiboak, mintegi eta hitzaldiak, agenteen bisitak, Internet guneen sortzea eta gisako ekimenak diruz lagunduko direla. Deialdiaren arabera, proiektuek Europa mailako dimentsioa, hizkuntza sustatzeko asmoa eta eragin biderkatzailea izan behar dute.

Dirulaguntza, gehienez ere, proiektuaren %50ekoa izango da. Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 25ean amaituko da. Deialdi honetara aurtengo azaroaren 15az gero gauzatuko diren ekimenak aurkeztu ahal izango dira.

Eskabide orria Internet bidez lortu nahi izanez gero, hona helbidea:

<http://europa.eu.int/en/comm/dg22/langmin.html>

Era berean, eskabidea posta elektronikoz (helbidea: langmin@dg22.cec.be) edo Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren bitartez egin liteke.


## UDAKO BARNETEGIAK

Euskara ikasteko hamaika aukera

**D**enborarik gabe eta eginkizun denetara iritsi ezinik ari den euskara ikasleak aukera ona du udan. Hainbat euskaltegik udako barnetegiak antolatu ohi dituzte, era guztietakoak. Uztailean, abuztuan eta irailean izango dira, aukeran. Maila guztiak irakatsiko dira, izan lehenengo urratseko ikastaro trinkoak eta EGA mailakoak. Badira 2 asteko iraupena dutenak, eta hilabetekoak; egunean 6 ordukoak, eta 8koak. Herriei dagokienez, mendebaldetik ekialderaino izango dira, mapan seinaturik ageri diren herrietan.

Aukera ezin-hobea hizkuntzari bultzada emateko.

Argibideetarako, jo HABE erakundera. Tel.: 943412600; e-posta: habe@ej-gv.es





# EREMU URRIKO HIZKUNTZEI BURUZKO VII. NAZIOARTEKO BILTZARRA



**G**ai honetaz ari izan ginen *Berripaperaren* aurreko alean eta berri gehiago emango genuela agindu genuen. Hona, bada, zehaztasunak jarraian.

1999ko abenduaren 1etik 3ra izango da, Bilbon, Euskalduna Jauregian. Bi gai nagusi jorratuko dira, batik bat: Hizkuntza Biziberritzeko Saioterako Eredu Teorikoak landuko dira, batetik, eta nazioartean izan diren esperientziak erakutsiko dira, berriz, bestetik. Denera 5 hitzaldi nagusi, 10 komunikazio eta 30 poster eratuko dira.

Hizlari nagusien artean izango dira, besteak beste, Joshua Fishman, Yeshivako Unibertsitatekoa; Lluís Jou, Kataluniako Generalitateko ordezkaria; Collin Williams, Cardiffeko Unibertsitatekoa, eta Xabier Aizpurua, Eusko Jaurlaritzaren izenean.

Euskara, gaztelania eta ingelesa izango dira Biltzarreko lan hizkuntzak eta horietan aurkeztu ahal izango dira hitzaldiak eta komunikazioak, aldibereko interpretazioa eskainiko delarik. Posterrak, berriz, zeinahi hizkuntzatan aurkezteko modua izango da.

Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko Biltzarrean izen emateko nahiz komunikazioen eta posterren gaineko proposamenak egiteko azken eguna uztailaren 15a da. Hizkuntza Politikarako Sailordetzan eskura liteke izen emateko orria, 945018110 telefonon edo e-postaz: hizkpol@ej-gv.es

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza  
Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 80 98  
e-posta: M-Meaurio@ej-gv.es

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

e-posta: .....

## ORDENADOREEK AHOZKO EUSKARA ULER DEZATEN

### 11.200 grabazio baino gehiago

**O**rdenadoreek euskara mintzatua ulertzea bideratuko duen ikerketa-proiektua burutu du Euskal Herriko Unibertsitateak, Telefonica I+G eta EITBrekin batera. Euskara hiztunen 5.000 dei behar zituzten proiektuaren arduradunek, doako telefono batera deitu eta esaldi batzuk errepikatzen. Datu basea osatzea zen helburu, ahotsa ezagutzeko sistemak garatzeko. 5.000 ez baina 18.000 dei inguru jaso zituen 900234234 telefono zenbakiak. Horietarik 11.200, baliagarriak. Ondorioz, EHUK eta Telefonica I+G enpresak hainbat ekimen garatu ahal izango dituzte. Telefonikak, adibidez, ahots ezagutzailak prestatu eta euskarazko telefono zerbitzu berriak eskaini ahal izango ditu. EHUko Elektrizitate eta Elektronika Saileko Mintzairak Ezagutzeko ikerketa-taldeak arlo honetan egiten ari den ikerlanari jarraipena emango dio, eta Euskal Filologia Sailak ere dokumentazio-base garrantzitsua izango du, egungo euskararen fonologiaren inguruko azterketetan lagungarri.